

“Zapalduaren ahotsak atzetik oihu egiten du, eta gure beharra da ahots hori entzutea”

Losune de Goñirekin solasean



Itsaso Larramendi Elexgaray
Ander Zangitu Orbea
Arkitektoak

Jasotze-data: 2017-05-20
Onartze-data: 2017-06-12

Filosofia ikasketak burututa, Bartzelonan Literatura, Artea eta Pentsamenduan Ikasketa Konparatuen masterra egin zuen Losune de Goñik (Burlata, 1993). Egun Filologia Ingeleseko gradua egiten ari da, eta aldi berean, doktoretza prestatzeko lanetan dihardu. Poesia idazlea eta argazkilaria da bera, eta bere poemak *Lekore literatur aldizkarian* eta *Los muchachos ebrios* eta *Hatsaren poesia 2017* poesia antologietan argitaratu dira besteak beste. Dantza garaikide piezak ere sortu izan dira bere poesiak inspirazio iturri gisa hartuz. Feminismoa bere lanaren erroetan dago eta emakumea eta hiriaren arteko irudikapen poetikoa egiteko gonbitea luzatu diogu.

Aldiri: Osatutako azalean emakumea da protagonista eta irakurleari begira ari da misterioz bezala. Mugimendua ere nagusi da, aldaketa agian. Zein da zuk proposatutako irakurketa?

Losune: Modeloak Amaya Cía du izena, baina edozein emakume izan daiteke. Hondakinen artean altxatzen den emakumea da, ispiluan bere burua bilatzen duena. Begirada misteriotsuak eta mugimenduak aldaketa iragartzen dute: emakumea izaki metamorfikoa da, plurala, baina inguratzen duen espazioak ez die haren mugimenduei jarraitzen. Eraikinak zurruneziak dira, harrizkoak, hotzak, mugiezinak. Aldatu beharreko sistema bat iradokitzen dute, gurekin jada bat ez datozen balioak eta espazioak. Hala ere, erortzeko zorian daude eta hondamen horrek jaiotze baten berri ematen du. Berreraikitze baten berri.

A: Berreraikitze horretan beraz, zure ustez feminismoak badu ematekorik. Zer harreman dute generoaren inguruko hausnarketek zure adierazpen artistikoarekin?

I: Niretzat feminismoa eta sormen artistikoa oso lotuta daude. Arteak erabili dituen gaiak, baita gai horiek aurkezteko eta lantzeko moduak ere, patriarkalak izan dira beti. Artista eta idazle gehienek gizon zuri zisheteroak izaten jarraitzen dute, eta historian zehar emakume sortzaile asko egon badira ere, kanona gizonaezkoek osatzen dute.

Interesatzen zaizkidan gaiak kultura patriarkalak orain dela gutxi arte baztertu dituenak dira: sexualitatea, eromena, amatasuna edo haren ukapena, emakumeen arteko erlazioak, etab. Argazkigintzan erabiltzen duten teknikak ere generoaren inguruko hausnarketarekin erlazioa izan dezake, askotan erabiltzen baitut, adibidez, hilekoaren odola negatiboekin esperimenduak egiteko. Esposizio bikoitzaren erabilera ere gizarte patriarkalak subjektuaren eta objektuaren artean ezarritako muga suntsitzeko bide bat izan daiteke, gorputzen arteko mugak ezabatzeko.

Azkenik, nire kanon pertsonala emakumeek edo binarismoari uko egiten dioten pertsonak osatzen dute gehienbat. Azalean agertzen diren argazkiak Francesca Woodman-en obran inspiratuta daude. Hondakinak, ispilua, zuri-beltza eta esposizio luzeak haren lanean behin eta berriro errepikatzen diren elementuak dira. Amaya Francesca da, eta Francescaren eraikinak gureak dira. Haren borroka gurea da.

A: Zure jardun akademikoan ere zentraltasuna dauka ikuspegi ez hegemonikoak azaleratzeak. Doktoretza hastekoprestaketa-lanetan zabilta eta berridazketa mitologiko feministak landu nahi dituzu. Kontaiezaguzu apur bat gaiari buruz eta horren inguruko motibazioez.

I: Mito bat kontatzen den bakoitzean istorioa berrinterpretatu egiten da, testuinguru historiko berri batera edo autorearen ikuspegi pertsonalera moldatuz. Gizonaezkoen berridazketa asko ezagunak zaizkigu (James Joyce-n Ulysses eleberria,

adibidez), baina emakumeek ere idatzi zituzten (eta idazten dituzte) beren berrinterpretazio propioak. Esaterako, H.D.-ren *Helen in Egypt*, Christa Wolf-en *Cassandra* eta Louise Glück-en *Averno* liburuak. Ez dugu ahaztu behar mito gehienak gizarte patriarkalaren barnean sortu eta garatu direla. Hortaz, gizarte horren balioak eta aurreiritziak islatzen dituzte. Oro har, emakumezko pertsonaia mitologikoak modu partzialean irudikatuak izan dira, gizonezko pertsonaiekin duten erlazioa murriztuta. Gizonek galtzen edo irabazten dituzten gerrako harrapakinak dira, emazte mendekariak, jainkosa jeloskorrak edo hila beharreko alabak. Bigarren mailako pertsonaia dira eta pentsatzen edo sentitzen dutenak ez du inolako garrantzirik. Emakumeek idatzitako bertsioetan, aldiz, pertsonaia nagusiak emakumeak dira eta istorioa haien ikuspuntutik kontatzen da. Iraganean ahotsik izan ez zuten emakumei hitz egiteko aukera ematen zaie eta, horrekin batera, gai berriak azaltzen dira: ama eta alabaren arteko erlazioa, abortua, bortxaketa, gerrak eragindako sufrimendua, etab.

Oso interesgarria iruditzen zait berridazketa horiek nola artikulatzen diren aztertzea. Askotan gizon zuriaren bertsioa baino ez dugu entzuten, baina emakumearen ahotsak atzetik hitz egiten du, zapalduaren ahotsak atzetik oihu egiten du, eta gure beharra da ahots hori entzutea.

A: Azalera itzuliz, era digitalaren eztanda honen erdian argazkigintza analogikoarekin egiten duzu zuk lan. Gainera, zuk zeuk gauzatzen duzu errebelatze-prozesu osoa. Zer ematen dizu pelikulak digitalak ematen ez dizuna?


I: Lehenbizi, argazkigintza analogikoak egiten dudan lanarekin erlazio estuago bat izateko aukera ematen dit. Argazki bat egitea ez da bakarrik kliskagailua sakatzea: prozesu luze bat dago argazki bakoitzaren atzean, baita argazkigintza digitalean ere, eta lan hori ahaztu dugula dirudi. Argazkiak errebelatzean negatiboak ukitzen ditut, nire etxeko bainuontzian lehortzen uzten ditut eta nahi bezala eskaneatu ditzaket ondoren.

Bestalde, ni naiz errebelatze-prozesua kontrolatzen duena. Nik erabakitzen dut kimikoak zenbat gradutan isuriko ditudan, errebelatze-prozesuak zenbat denbora iraungo duen eta negatiboak nondik moztuko ditudan. Askatasun horrek esperimentuak egitea ahalbidetzen dit. Adibidez, filmak argazkien kolorea aldatuko duten likido ezberdinetan sartzen ditut. Emaitza sorpresa bat izaten da beti.

A: Idatzizkoan ere aritzen zara. Poesia esperimuntazio-esparru bezala bizi duzu baita, ala diziplina bakoitzean sorkuntza-prozesu eta helburu ezberdinak bilatzen dituzu?

I: Poesian ere modu esperimuntalean egiten dut lan. Azken proiektuan, adibidez, euskaraz eta gaztelaniaz idazten nabil itzulpenik egin gabe, eta diskurtsoa bitan zatitzen den ahots batek artikulatzen du. Hala ere, sormen-prozesua oso ezberdina da. Niretzat idaztea mingarria da. Asko eskatzen diot neure buruari eta batzuetan hilabeteak ematen ditut poema bakar bat osatzeko. Beti nabil hizkuntzarekin borrokan. Argazkigintzak literaturan orain arte aurkitu ez dudana eskatasuna eskaintzen dit, bakea. Kamerarekin intuizioz egiten dut lan, bulkadaz. Literaturan gauza bera lortu nahi dut: gorputzarekin idatzi nahi dut, neure buruari oztoporik jarri gabe.

A: Eta publikatzeko medioak ere baldintzatzen al du sormen-prozesua? Egun, Internet eta sare sozialak erakusleho klabeak dira. Bestalde, publikazio auto-editatuak ere areagotzen ari



Irudiaren egilea - Irati Eguren

dira. Zer eragin daukate horiek zure jardunean?

I: 15 urterekin hasi nintzen testuak Interneten argitaratzen eta horrek asko baldintzatu du nire lana. Hasieran blogean publikatzeko poemak idazten nituen, beste idazle gazte batzuek partekatzen zutena irakurri ondoren. Pertsona interesgarri asko ezagutu ditut Interneten bitartez: idazleak, argazkilariak, editoreak, artistak. Batzuekin dudana erlazioa oso estua da, eta asko ikasi dut haien testuen, argazkien eta gomendioen bidez. Bestalde, auto-editatutako zenbait proiektutan parte hartu dut. Besteak beste, Lekore literatur aldizkarian, Andrea Abreu López-en *Escribir con sangre* gaztelaniaz idatzitako fanzine batzuetan. Gaur egungo literaturak paperaren mugak gainditzen ditu, pertsonen artean zubi berriak eraikiz, eta aukera hori aprobetxatu behar dugu.

A: Bukatzeko, non izan dezakegu zure lanen berri?

I: Argazkiak Tumblr-en publikatzen ditut (iosunedegoni.tumblr.com) eta testuak, bai euskaraz bai gaztelaniaz, Blogspot-en (<http://lipsofiliak.blogspot.com.es/>). Bi espazioek izen bera daramate: «Mitxoletak urrian», Sylvia Plath-en poema baten izenburua.

===